

"Kultur erreferentzia" eta Alli

Euskaldunon Egunkaria, 1993-11-09: 2.

Aurreko zutabetxoan, urriak 26, Juan Cruz Alli, Nafarroako lehendakaria, aipatu nuen bere euskalduntasuna ezagutu eta goraiatzeko. Nire aitona zenak Gurpegi eta Aoiztik Hernanira XIX.ean ekarri zuen euskara gogarazi zidan bere UPNko gaztediaren aurrean esandakoak. Ez dakit nire aipamen honek zerikusirik izan duen, baina hiru egun gero, urriak 29, EGUNKARIAk zera dio: "Euskal Herria 'kultur erreferentzia' modura bakarra onartzen du Allik" titulupean: "Euskal Herriko kultur ezaugarriak onartzen dituela, eta horiek bultzatzeko prest dagoela, baina 'bere proiektu politikoan (Euskadi) ez dut sinesten, historikoki nork bere bidea segitu duelako". Eta arrazoi du. Baina neuk ere bai, zeren eta noizbait historikoki Nafarroatik desbideratu zena berriz bideratzerik egon daiteke. Demokrazian, bere gogoz, sei herrialdeak elkartu daitezke arrazoizko bideratze berri batean, federalki, konfederalki, kulturaren bitartez, hain zuzen. Zeren eta Erdi Aroko batasun hartatik herrialdeetan zerbait geratu bada, kultura da: kultura idatzia eta herriak berez gorde duen hizkuntza, eta gain-gaineko toponimian eta familia-deiturak. Hemen aipatzen nuen Alli deitura "Arielari"tik zetorrela. Gaztelerak ez zion lagunduko bere deitura honen jatorria aurkitzen, euskarak, bai. Eta arrazoi kulturalak zati haundi batean galdu bazaizkigu, Estatu-politikaren eraginez izan da. Euskal Herria gaur ikusita: zer aurki dezakegu gure kasuan osaketa egoki eta politikoagorik ekintza kulturala baino?